

**NO AMEMOS DE PALABRA SINO CON OBRAS
EGIN ETA EKIN**

1. ZATIA (galdeketa pertsonaiei eta beren ezaugarriei buruz)

Lehen hiru galderari erantzuteko pelikulan agertzen den *Meteo des enfants* delakoa erabiliko dugu.



1. Zein sentimendu eragin dizue pelikulak?

**2. Pelikula bukatu ondoren duzuen sentimendua berdina izan da pelikula osoan zehar?
Zer sentitu duzue, esate baterako, ondorengo une hauetan?**

- Kalabazinen ama hiltzen denean.
- Simonek Kalabazini patata esaten dionean, jantokian haur guztiei barre egiten dienean eta Kalabazini lo egiten uzten ez dionean.
- Elurretara egiten duten txangoan, gelan dantzan eta elur-bolen gerra egiten dutenean.
- Izeba Camille agerian uzten dutenean.
- Raymondek Camille eta Kalabazin adopzioan hartzea erabakitzen duenean.

3. Zein sentimendu eragiten dizuete ondorengo pertsonaiok?

- Kalabazinen ama
- Kalabazin
- Raymond, polizia
- Simon, umezurtz-etxeko buruzagia
- Ida izeba (Camilleren izeba)
- Camille
- Paul eta Rosy, irakasle-bikotea
- Papineau and.a, umezurtz-etxeko zuzendaria
- Umezurtz-etxeko zuhaitzean habia egiten duten txori pare

4. Aderazi ondorengo pertsonaien bizpahiru ezaugarri

Pertsonaia	Ezaugarriak
Kalabazin	
Kalbazinen ama	
Camille	
Simon	
Raymond	
Papineau And.a	
Paul eta Rosy	
Ida izeba	

Zerrenda honetatik aukera daitezke ezaugarriak: alaia, ezatsegina, maltzurra, adeitsua, motela, isekaria, lasaia, trebea, fidakorra, konformista, mizkea, koldarra, harroa, ausarta, eragabea, despistatua, jostaria, otzana, bihurria, zakarra, aberaskumea, makala, leiala, aparta, eskuzabala, heldugabea, inozoa, arduragabea, adarjotzailea, lotsagabea, gaizki-pentsatua, gezurtia, zorrotza, behatzailea, handiputza, beldurtia, zuhurra, mutiria, irribarretsua, marmartia, barea, serioa, atsegina, zintzoa, lagunartekoa, bakartia, isila, egoskorra, langilea, xaloea, goibela, adoretua, bizia, berritsua, ergeltxo...

5. Norekin biziko zinatekete eta norekin ez?

- 6. Marrazkiaren dinamika.** Talde handia talde txikietan banatu. Talde bakoitzak pertsona baten silueta marraztuko du era honetara: taldekide bat etzango da paper jarraitu zati baten gainean eta gainerakoek, arkatz edo errotuladoren, gorputzaren silueta marraztuko du paperaren gainean. Ondoren, irudia ebakiko dute, marraztutako siluetari arretaz jarraituz eta barruan beraiekin egoteko atsegin dituzten pertsonen –hau da, adiskide,

gelakide, guraso, anai-arreba, beste senide bazuk...- izan beharko lituzketen ezaugarriak idatziko dituzte errotuladorez.

2. ZATIA (talde-lanari eta elkarri laguntzeari buruz)

7. Zeintzuk dira pertsonaia bakoitzaren tikak? Erantzunak:

- Ahmedek ohean pixa egiten du.
- Alicek platera sardeskaz jotzen du urduri jartzen denean eta aurpegia kopeta-ileaz estaltzen du.
- Simonek, haur bakoitza umezurtz-etxera zergatik joan den jakin nahi du eta oldarkorra da haur guztiekin.
- Umezurtz-etxera auto bat sartzen den bakoitzean, Bea "Ama!" oihukatuz ateratzen da sarrerara.
- Jujubek beti darama tiritara pare bat buruan.

8. Zein pertsonaia lagundu die Alice, Simon eta Beari tikak atzean uzten? Pelikularen amaieran, Alicek ez du ez platera sardeskaz jotzen ezta aurpegia kopeta ileaz estaltzen ere; Simonek ondo hartzen ditu bere kideak eta Bea ez da "Ama!" oihukatuz ateratzen sarrerara, auto bat sartzen den bakoitzean.

9. Noiz ikusten da talde-lana pelikulan?

- Raymond, Papineau And.a, Paul eta Rosy (erantzuna: haurren zerbitzura dauden erakundeak ordezkatzeko dituzte, haien familiek eman ez dietena eskainiz).
- Alice, Kalabazin, Simon, Ahmed eta Jujube (erantzuna: Ida izebaren bitartez Camilleri helarazten dioten hojalatazko barkuan Mp3a jartzen dutenean).
- Txori pare (erantzuna: habia egin eta arrautzak txitatzen dituztenean).

10. Pelikularen kartela egingo dugu. Kalabazinek makina bat marrazki egiten du pelikulan zehar. Bere gelako hormak ere marrazkiz josita daude. Pelikulako hainbat irudi eta marrazkia egiteko lagungarriak eskainiko dizkiegu neska-mutikoei. Talde txikietan banaturik, pelikularen kartela egingo dute. Ondoren, kartelarekin zer adierazi nahi izan duten azal dezatela.



11. Geure 'stop motion' pelikula egin. Kalabazinen pelikula, 'stop motion' deitutako teknika erabiliz egin zen. Zehatz-mehatz, zertan datza? *'Stop motion' teknika 1900koa da eta animazio-teknikarik zaharrena dela uste da. Gaur egun, asko erabiltzen dute publizitatean, telesailetan, bideo-klipetan eta zinean. Teknika honekin, gauzen mugimendu-irudia egiten da argazki-segidaren bitartez. Hori bai, argazki batetik bestera aldaketaren bat izango da, delako mugimendu-irudi hori egiteko. Zenbat eta txikiagoa izan delako aldaketa hori, orduan eta errealistagoa izango da animazioa. Hori bai, kontu handiz ibili beharra dago, filmatze-teknika progresiboa denez, ezin delako atzera egin.*

Ondorengo bi bideo hauetan argi eta garbi ikus daiteke nola egin zen Kalabazinen bizitza:

- 1. bideoa:
<https://www.youtube.com/watch?v=jmiWSaMBf14&list=PLuz86QakL9WE75z60aGvbWUkdFgC9Tor> &index=1
- 2. bideoa:
<https://www.youtube.com/watch?v=OltCpVb7Xnc&index=3&list=PLuz86QakL9WE75z60aGvbWUkdFgC9Tor>

'Stop motion' gelan garatzeko adibideak:

- 1. bideoa:
https://www.youtube.com/watch?list=PL9UmKZJmwNGKNB1CJBpCyFD7xV5z-FSDx&time_continue=1&v=1KhBkrW2rmM
- 2. bideoa:
https://www.youtube.com/watch?time_continue=5&v=1BEPrUJ2VRE


Zer behar dugu gelan 'stop motion' pelikula egiteko?:

- Argazki-kamera (edo argazki-kamera duen sakelakoa).
- 'Windows Movie Maker' edo antzeko programa duen ordenagailua, irudiak bata bestearen atzetik ipintzeko eta efektuak gehitzeko.
- Aktoreak (protagonistak haurrak badira)
- Panpinak (protagonistak gauzak badira)



3. ZATIA: IRAKURKETA SINESTEDUNA

1. Gure inguruko haurrek bizi dituzte pelikulan islatzen diren egoerak ala bakarrik pelikuletan gertatzen dira horrelakoak?
2. Ohatu zarete zein den haur eta helduen gorputzaren atalik handiena? (Erantzuna: begiak)





3. Zein da begiak ikusten ez zaizkion heldu bakarra? (Erantzuna: Kalabazinen ama)



4. Ebanjelioko txatal bat (Mk 10, 46-52) irakurriko dugu. Hemen ere begia da protagonista.

Jerikora iritsi ziren. Eta Jesus bere ikasleekin eta jendetza handiarekin hiritik irteterakoan, Bartimeo itsua, Timeoren semea, eskean zegoen bide-ertzean eserita. Jesus Nazatearra zela jakitean, oihuka hasi zen:

–Daviden Semea. Jesus, erruki zakizkit!
Askok gogor egiten zioten, isilarazteko; baina hark areago oihu:
–Daviden Semea, erruki zakizkit!
Jesusek gelditu eta hari dei egiteko agindu zuen. Dei egin zioten itsuari, esanez:
–Izan bihotz! Jaiki, deika ari zaik.
Bere soingainekoa jaurtiz, salto batean zutitu eta Jesusengana joan zen. Jesusek galdegin zion:
–Zer nahi duzu niregandik?
Itsuak erantzun:
–Berrero ikustea, Jauna.
Jesusek esan zion:
–Zoaz, zeure sinesmenak sendatu zaitu.
Une berean, ikusmena etorri zitzaion berrero, eta Jesusen ondoren zihoan bidean.

5. Zer ikusi duzue gaur zuen begiez altxatu zareten unetik orain arte?

6. Zein da laguntza beharrean ikusi duzuen azken laguna? Eta lagundu diozue?

7. Ikusiz ikasiren mezua eta amaiera. Frantzisko Aita Santuak haxe eskatzen digu: begiak irekirik izan ditzagula, eta batez ere, gaizki dagoenarengan, gure laguntza gehien behar duenarengan (hemen ikusiz ikasiren gaiaren inguruan jardun daiteke) arre jar dezagula. Pelikularen hasieran Kalabazinen kometa agertzen da. Superheroiak marraztu du komenta horren gainean. Eta zertan aritzen da superheroiak? Arriskuan daudenak salbatzen. Eta zein da superheroiaren zentzumenik garatuena? Ikusmena. Pelikulan, ospetsuak ez diren eta haurrak salbatzen dituzten superheroiak agertzen dira: Raymond polizia, Papineau And.a, Paul eta Rosy. Haurrek ere superheroiaren jarrerak dituzte beraien artean, esate baterako, Camileri izeba agerian uzten laguntzen diotenean edo Camillek Simoni aurre egiten dionean jantokian. Jesus superheroi baten antzekoa da Bartimeo haurarentzat (idazkian adinik agertzen ez denez, Bartimeo eskean dabilen haurra dela pentsa dezakegu, pelikula eta ebanjelioa aurrez aurre jarritz).



**Bilboko
Gotzaitegia**
OBISPADO DE BILBAO

Fede-zabalkunde eta katekesirako ordezkari
DELEGACIÓN DE ANUNCIO Y CATEQUESIS

Amaitzeko, geure izenak idatziko ditugu kometa itxurako paper batean (neska-mutiko bakoitzari paper-zati bat eman, ez heldu baten eskua baino handiagoa). Gure Aita errezatuz, besteak babesten eta salbatzen laguntzeko eskatuko diogu Jesusi. Kometa guztiak gelan eskegi daitezke denek ikusteko moduan.